

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 741/2021 Erabakia, abenduaren 14koa. Onespena ematea Araban berrikuntza eta digitalizazioa sustatzeko laguntzen 2022ko ekitaldirako deialdiari (Araba Innova – Digitaliza)

Berrikuntza sustatzeko politikak hazkunde ekonomikoa bizkortzeko eskuarki onartuta dauden jardura publiko nagusien funtsezko zati dira; izan ere, munduko ekonomiako jokaleku berriak eskatzen dituen lehiakortasuna hobetzeko beharrei ematen zaien erantzuna dira.

Gizarteak eta industriak digitalizatzeko prozesuak abian jartzeak duen garrantzia, aurretiaz jada agerikoa, are nabarmenagoa da orain, COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz. Arabako Foru Aldundiaren ustez, digitalizatzeko funtsezko estrategia da Arabako enpresak garatzen ari diren berrikuntza prozesuetan, eta bizkortu egin behar da egoera berri horri erantzuteko.

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak uste du berrikuntzaren eta digitalizatzearen alde egitea ezinbestekoa dela, Arabako ekonomia jasangarria izan dadin eta hazi dadin. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen da jarduketa berritzaileak eta digitalizatzekoak babestea, herri administrazio guztiekin eta sistemako gainerako eragileekin lankidetzan jardunez eta elkarren osagarri izanik. Horretarako, konpromisoa hartu behar da toki eremuan bertan Arabako erakundeei laguntzeko, ekonomia eta gizarte gero eta globalizatuagoa ekarri duen XXI. mende honetako erronka, lehia eta aukerei aurre egin diezaien.

Euskadik RIS3 2030 Espezializazio Adimenduneko arloak definitu ditu, eta industria adimendunarekin, energia garbiagoarekin eta osasun pertsonalizatuarekin lotutako hiru lehentasun estrategiko identifikatu ditu. Lehentasun horiek, era berean, garrantzitsuak dira Arabako enpresentzat.

Lehenengo lehentasuna, industria adimenduna, garrantzitsua da Arabako ekoizpen ehunarentzat, manufakturan oso espezializatua delako. Hortaz, industria kontzeptu berri horretarako iragaita azkartu beharra dago, bereziki ETE eta mikro ETE-etan.

Arabako enpresak aurrera egin du prozesuen automatizazioan eta hobekuntzan, soluzio malguak hartu ditu eta robotizazioko, fabrikazio gehigarriko edo makinaren eta ekipoen arteko konektibitateko teknologiak txertatu ditu. Baina, aurrerapen horretan sakontzen jarraitzeaz gain, industria adimendunaren estrategiak berrikuntza eta fabrikazio teknologia jasangarriak eta digitalak sortzea eta aplikatzea proposatzen du, balio erantsi handiko produktuak eta zerbitzuak sortzeko eta negozio eredu berriak garatzeko, eragin handia dutenak aberastasunari, enpleguari eta ingurumen inpaktua minimizatzeari dagokienez. Barne hartzen du produktuak eta prozesuak bizi zikloaren ikuspegitik diseinatzea, material eta prozesu jasangarriak erabiltzea eta soluzio digitalak aplikatzea funtzionaltasuna, eraginkortasuna eta/edo erabilera esperientzia hobetzeko eta/edo datua ustiatuz balioa emateko.

Gizartea eta industria digitalizatzeko erronkak dakartza, esaterako hauexek: lankidetzaren bidezko diseinua, malgutasuna eta eraginkortasuna fabrikazioan, ekoizpen sortak eta denbora murriztea, eredu logistikoa adimendunak sortzea, kanalak eraldatzea, bezeroaren premiak aurreikustea, hiperkonektagarritasuna, trazabilitate dimentsioaniztuna, espezializazioa, baliozko industria ekosistemak sortzea, jasangarritasuna eta produktua pertsonalizatzea. Mundu globalean lehiatzeko gai izango den industria eredu adimentsu eta konektatu berri bat sortzea

ahalbidetuko duten erronka horiei arrakastaz aurre egiteko, digitalizatzeko jarduerak egin behar dira, bai produkzio prozesuetan, bai merkataritza prozesuetan eta saldu ondoko prozesuetan. Horretarako, besteak beste, honako teknologia hauek ezarri behar dira: telelana, urrutiko telelaguntza eta monitorizazioa, automatizazioa, elkarlaneko robotika malgua, errealitate birtuala eta areagotua, fabrikazio osagarria, adimen artifiziala, big data, cloud eta gauzen Internet. Digitalizatzeko prozesu horren ondorioz, beharrezkoa izango da hedatzea ziberseguratsuneko teknologiak sartzeko, eta, horregatik, Arabako Foru Aldundiak apustu egiten du arlo horretan berrikuntza egitearen alde, Arabako Lurralde Historikoan ZiberSeguratsuneko Euskal Zentroa jarriko dela aprobetxatuz.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak lehen aipatutako beste bi lehentasun estrategikoetan — energia garbiagoak eta osasun pertsonalizatua — enpresa ehuna garatzearen alde egingo du eta, zehazki, energiaren pilaketan eta sendagaien garapenean, lurraldean erreferentziazko zentroak daudela aprobetxatuta, hala nola IKZ Energigune eta farmazia garapeneko poloa.

Ondorioz, Arabako Foru Aldundiak, jakitun zenbaterainoko garrantzia duen berrikuntzak eta digitalizatzeko Arabako Lurralde Historikoa garatzeko eta Arabako ekoizpen sarea eguneratu dadin eta lehiakorra izan dadin, erabaki du berrikuntzan diharduten eta teknologia digitalak gehiago erabiltzera bideratutako jarduera berritzaileak egiten dituzten erakundeei laguntzea. Baloratuko dira espezialki ZiberSeguratsuna, energia pilaketa eta farmazia jarduerak.

Horiek horrela, erabaki honen bidez aginduzko deialdia egiten da Araban berrikuntza (Álava Innova-Digitaliza) sustatzeko laguntzak emateko, zeina aintzat hartu beharko baitute berrikuntzarako ekimenek, betiere Diputatuen Kontseilu Foralak abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bitartez onetsitako oinarri orokorren esparruan, hartara ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta behar bezala betetzearen publizitate, lehia eta objektibitate eta berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak.

Horregatik, lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatu eta, titularra gaixorik dagoenez, Ekonomia Garapenean, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko jarduneko diputatuaren proposamenez, diputatu nagusiaren azaroaren 23ko 346/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Araban berrikuntza (Araba Innova-Digitaliza) sustatzeko laguntzen 2021eko ekitaldirako deialdi publikoari (erabaki honi erantsi zaio).

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautuko dute: batetik, Diputatuen Kontseilu Forala abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretua, lehiaketa bidez emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrak onesten dituen, eta erabaki honen eranskinetan xedatutakoa.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako diru laguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

— “15101. G/433152/77000167. Alava Innova Enpresak. EGEF” 2022rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren partida, 830.000,00 eurokoa, eta 2023ko konpromiso kredituarena, 830.000,00 eurokoa.

— “15101. G/433152/77000168. Alava Innova autonomoak. EGEF” 2022rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren partida, 10.000,00 eurokoa, eta 2023ko konpromiso kredituarena, 10.000,00 eurokoa.

— “15101. G/433152/78100163. Alava Innova elkarteak. EGEF” 2022rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren partida, 10.000,00 eurokoa, eta 2023ko konpromiso kredituarena, 10.000,00 eurokoa.

Oinarri orokorren 7.2. oinarria betez (Diputatuen Kontseilu Foralaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa), saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko guztiaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera eraginak sortuko ditu.

Bosgarrena. Deialdiaren behin betiko ebazpena eten dezakeen baldintza gisa, kreditu egokia eta nahikoa izan behar da Arabako Foru Aldundiaren 2022ko eta 2023ko aurrekontuan.

Seigarrena. Ebazpen honen bitartez administrazio bidea bukatuko da eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat etorriz, berraztertze aukerazko errekurtoa jarri ahal izango da Foru Gobernu Kontseiluan ebazpena argitaratu ondorengo egunetik hasita hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita bi hilabeteko epean eskumenak dituen jurisdikzioan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Jarduneko Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografía Erronkaren Saileko diputatua
E. D. ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria
JAVIER HERNANDO GARCÍA

ERANSKINA**ARABAN BERRIKUNTZA ETA DIGITALIZAZIOA SUSTATZEKO LAGUNTZEN
2022KO EKITALDIRAKO DEIALDIA (ARABA INNOVA - DIGITALIZA)****1. artikulua. Xedea**

Deialdi honen xedea da Araban berrikuntza eta digitalizazioa sustatzea, norgehiagoka bidez dirulaguntzak emanez Arabako ekonomia modernizatzen eta ekoizpen egituraren lehiakortasuna hobetzen laguntzen diharduten erakundeei.

Laguntza programa hau egin da enpresen lehiakortasuna hobetzen duten ekintzak sustatzeko, honako hauek lortzea helburu duten jarduketa berritzaileei laguntza emanez: fabrikazio aurreratua – Industria 4.0 gehiago sartzea, teknologia digitalak ezarri eta erabiltzea, enpresen produktuen, prozesuen eta merkatuen dibertsifikazioa eta enpresa antolaketa hobetzea.

2. artikulua. Aurrekontu partidak eta gehieneko zenbateko osoa

Deialdi honen bidez araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko gastuen aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– 2022rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren “Alava Innova enpresak. EGEF” partida, 830.000,00 eurokoa, eta 2023ko konpromiso kredituarena, 830.000,00 eurokoa (zorpekin erreferentziak: 21.7.21.107.39/000 eta 21.7.21.107.40/000).

– 2022rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren “Alava Innova autonomoak. EGEF” partida, 10.000,00 eurokoa, eta 2023ko konpromiso kredituarena, 10.000,00 eurokoa (zorpekin erreferentziak: 21.7.21.107.41/000 eta 21.7.21.107.42/000).

– 2022rako indarrean dagoen Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu antolamenduaren “Alava Innova elkarteak. EGEF” partida, 10.000,00 eurokoa, eta 2023ko konpromiso kredituarena, 10.000,00 eurokoa (xedapen erreferentziak: 21.7.21.107.43/000 eta 21.7.21.107.44/000).

Deialdiaren behin betiko ebazpena Arabako Foru Aldundiaren 2022ko eta 2023ko aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende egongo da.

Oinarri orokorren 7.2. oinarria betez (Diputatuen Kontseilu Foralaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa), saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko guztiaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Deialdi honetan jasotzen diren onurak eskuratu ditzakete:

a) Egoitza soziala eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten enpresek, beren osaera juridikoa edozein dela ere, edo, gutxienez, jarduera zentro bat Arabako Lurralde Historikoan daukatenez eta eskaera egiteko unean zentro horri atxikitako langileak dituztenek. Enpresa sortu edo jarduera hasi zenetik eskaera egiten den egunera arte gutxienez urtebete igaro behar da. Lehenago beste izen edo forma juridiko baten pean jarduera bera egiten bazuten, haien hasierako eraketa data hartuko da kontuan haien antzinatasuna zenbatzeko.

Deialdi honen ondorioetarako, enpresa bat EET izango da 250 soldatapeko baino gutxiago badauka, haren urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez bada eta haren urteko balantzea 43 milioi eurotik gorakoa ez bada, dena itxitako azken kontabilitate ekitaldiaren gainean eta urteko oinarrian kalkulatuta.

b) Zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten autonomoak, baldin eta gutxienez urtebete igaro bada laguntzaren xede den jarduerari dagokion JEZe an alta eman zutenetik laguntza eskaera aurkezten duten egunera arte.

c) Arabako Lurralde Historikoan jarduera zentroa duten zentro teknologikoak edota ikerketa zentroak, Araban irakaskuntza unitatea duten unibertsitateak eta Araban helbide soziala eta fiskala dauzkaten fundazioak eta enpresa elkarteak eta I+Gko enpresa unitateak, haiek denak gutxienez bi urteko antzintasuna izanik.

3.2 Diru laguntzen onuradun izateko, legezko gainerako betekizunak betetzeaz gain, erakundeek egunean izan beharko dituzte Ogasunarekiko zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai diru laguntza emateko ebazpenaren aurretik, bai diru laguntza jasotzeko unean.

Erakunde onuradunak Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizaziorako kontu koderik esleituta ez badu, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.3. Ezin dira onuradun izan sozietate publikoak, ezta erakunde administrazioarenak diren be-rezko nortasun juridikoko erakundeak ere, Araban irakaskuntza unitateren bat duten ikastetxeak (goiko 3.1.c puntuan aipatutakoak) eta ureztatzaileen elkarteak izan ezik.

3.4. Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailak Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren bidez dirulaguntza izenduna ematen dien erakundeak ere ez dira onuradun izango

3.5. Halaber, kanpoan geratzen dira ezarritako epearen barruan laguntza lerro honen aurreko deialdietan diruz lagundutako jarduerak egin eta ordaindu izana frogatu ez duten erakunde eskatzaileak, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz haiek ez egiteko arrazoiak behar beste argudiatu balira izan ezik.

4. artikulua. Jarduera berritzaileak, diruz lagundu daitezkeen gastuak eta diruz lagundu ezin direnak

4.1. Hurrengo jarduketa berritzaile hauen barruan kokatutako jarduketak diruz lagundu aha-lko dira:

1. Teknologia digitalen erabilera intentsiboa sartzeari enpresen prozesu guztietan, hala nola automatizazioa, urrutiko monitorizazioa, telelaguntza, telelana, zibersegurtasuna, big data, fa-brikazio gehigarria eta 3D inprimaketa, robotika laguntzaile eta malgua, adimen artifiziala, erre-alitate areagotua eta errealtate birtuala, cloud plataformak, sistema ziberfisikoak edo gauzen Internet. Apartatu hau ondorengoetatik bereizi da, digitalizazioak eta industria adimendunak Arabako ekonomiarentzat garrantzi estrategikoa dutelako.

2. Produktua edo zerbitzua: merkatuan sartzeari produktu edo zerbitzu berriak edo dauden produktuak nabarmenki hobetuta, produktuen katalogoan sar daitezen eta merkatura irteteko edo salgai jartzeko asmoz.

3. Prozesua: ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko prozesuak, banaketa eta logistika proze-suak, marketin eta salmenta prozesuak, informazio eta komunikazio sistemen prozesuak, ad-ministrazio eta kudeaketa prozesuak eta berriak diren edo berrikuntza esanguratsua dakarten produktuak eta negozioak garatzeko prozesuak.

4. Beste batzuk: Arestiko puntuetan sartu ez diren beste jarduera batzuk biltzen ditu, hala nola trantsizio ekologikoaren, korporazioaren gizarte erantzukizunaren eta abarren aldeko neurriak, erakunde eskatzaileak garatu eta berarentzat berritzaileak badira; kasu horretan, berritzaileak direla eta produktibitatea eta lehiakortasuna handitzen egingo duten ekarpena argudiatu beharko du.

4.2. Dirulaguntzaren xede izango dira erakunde eskatzaileak aipatutako jarduera berritzailearen bat kontratatzeke izandako barneko gastuak, eta behar beste gaitasuna duten hornitzaileek egin beharko dituzte. Arabako enpresen digitalizazioa bultzatu eta sustatzeko helburuarekin bat etorritik, eta deialdi honen ondorioetarako, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak kanpoko gastutzat hartuko ditu softwarea eta ERP edo antzekoak eta lizentzia informatikoak erostea.

4.3. Ehun langile edo gutxiagoko enpresentzat, ibilgetu materialeko inbertsioak diruz lagundu ahal izango dira, Kontabilitate Plan Orokorraren kategoria hauen barruan:

- 213 Makinak.

Ibilgetuan inbertsioak egin badira leasing bidez, interesik, gasturik eta BEZik gabeko kuotetarako emango da dirulaguntza, deialdian jasotako burutzapen epeen barruan.

Ibilgetu inbertsioak diruz laguntzekoak izateko, enpresaren lehia posizioa nabarmenki hobetu behar dute eta teknologikoki aurreratuak izan, eta haien helburu diren ondasunek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Lehendabizikoz erabiltzen edo funtzionatzen hastea.
- Inbertsioa Arabako jarduera ekonomikoko zentro batean kokatzea.
- Gutxienez bost urtez egotea enpresaren aktiboan, fakturaren egunetik aurrera.
- Hirugarrenei alokatu edo laga gabe egotea, ordainik edo ordainik gabe.
- Enpresa eskatzaileak berak fabrikatuak ez izatea.

Positiboki baloratuko da, bai ibilgetuan egindako inbertsioetan, bai barne gastuetan, baldin eta deialdi honetan diruz lagun daitekeen kanpoko gastu bati lotuta badaude.

4.4. Halaber, dirulaguntza jaso dezakete deialdi honetara aurkeztutako berrikuntza jardueraren baten diseinu, garapen, gauzapen, jarraipen eta/edo ebaluazioari lotutako enpresetako I+G+b unitateetako lan kontratudun langileen barne gastuak (ikertzaileak eta/edo teknikariak eta/edo sortzaileak), betiere 5. artikuluko baldintzak betetzen badituzte. Eskaera bakoitzeko gehienez 4 pertsona onartuko dira.

4.5. Arau orokor gisa, gastu hauek ez dira diruz laguntzekoak izango:

- Erakunde kontratatzailearen eta kontratatuaren artean lotura dutenak.
- Web orri estandarrak garatzea.
- Materialen erosketa, baita material horiek prototipoen garapenerako beharrezkoak direnean ere.
- Obra, eraikuntza eta instalazio lagungarriekin (elektrizitatea, girotzea, segurtasuna, etab.) lotutako gastuak.
- Ingurumenaren gaineko azterlan edo proiektuak, baimenak lortzeko egiten badira, hala nola jarduera baimenak.
- Ibilgailu alokatuen eta taxien gastuak, kilometro sariak, bidaiak, hotelak, otorduak, telefonoa.
- Patenteen, homologazioen, utilitate modeloen eta marka komertzialen eskabiderako, emakidarako eta erregistrorako hasierako gastuak, salbu eta berrikuntzako proiektu global batean sartzen badira, 20.000 euroko gehieneko mugaraino.
- Kanpoko prestakuntzako gastuak, aurkeztutako jarduera berritzaileei zuzenean lotutakoak izan ezik
- Publizitate gastuak, webgunearen kokapen gastuak, etab.

– Gastu errepikakorrak, esaterako, aholkularitzakoak zein software lizentziak, web ostatatze gastuak, zerbitzari gastuak, etab.

– Estatu mailako zein nazioarteko azoketan parte hartzeko edota bertaratzeko gastuak.

– Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta zeharkako beste zerga batzuk, salbu eta aitopenean BEZa kendu ezin duten erakunde onuradunen kasuan; horrelakoetan, BEZa gastutzat hartu ahalko da.

4.6. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren ustez, proiektuaren gastu aurrekontua gehiegizkoa dela jotzen bada, antzeko proiektuetako gastuen batez besteko kostuarekin alderatuta, gastu doitu eta proportzionatutzat jotzen denera murriztuko da diruz lagun daitekeen zenbatekoa.

4.7 Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz erakunde esleitzailleak proposatutako jardueraren batek laguntza deialdi honen helburuari egindako ekarpena nahikoa ez bada, baztertu edo murriztu ahal izango dira esleitu behar den dirulaguntza kalkulatzeko.

4.8 Baimenduta dago dirulaguntza jaso dezaketen kanpoko gastuen ehuneko 100eraino azpikontratatea, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako baldintzak betez.

4.9. Diruz lagundu daitekeen elementuko gastu txikiena 100,00 euro (BEZa aparte) da, bai aurrekontua onartzean, bai fakturak justifikatzean. Salbuespenez, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak zenbateko txikiagoko fakturak onartu ahal izango ditu baldin eta gastu motagatik behar bezala justifikatzen bada.

5. artikulua. Barruko gastuen baldintzak

5.1. Deialdi honen babesean dirulaguntza jaso dezaketen barne gastuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Diruz lagundutako berrikuntza jarduketaren bati lotutako zereginak garatzeko zuzenduak izatea.

– Ikertzailea edo teknikaria edo sortzailea izatea, enpresetako bertako I+G+b unitateetakoak, prestakuntza akademiko eta kategoria profesional egokiarekin. I+G+b unitatea dagoela ulertuko da egituraren bat baldin badago erakundearen barruan, ez nahitaez organikoa, bereizita edo espezifikoa. Salbuespenez, ikertzaileen eta/edo teknikarien eta/edo sortzaileen gastuak onartu ahal izango dira, nahiz eta erakundearen I+G+bko unitaterik ez egon, baldin eta instrukzio organoak komenigarritzat jotzen badu, proiektuaren izaeragatik eta eragin potentzialagatik.

– Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko 1. kotizazio taldeko langilea izatea. Halaber, haien lan baldintzek erakundearen aplikatu beharreko hitzarmenean xedatutakoa bete beharko dute. Salbuespen gisa, Gizarte Segurantzako beste erregimen batzuetako I+G+B jardueretako langileen gastuak onartu ahal izango dira, proiektuaren eta enpresaren izaeragatik justifikatuta dagoenean.

– Arabako lantoki bateko langilea izatea.

6. artikulua. Jarduketak egiteko epea eta aplikazio eremua

6.1. Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dituzte dirulaguntza jasotzen duten jarduketaren emaitzak edo bertan egin beharko dituzte jarduera horiek.

6.2. Dirulaguntza jaso dezakete laguntza eskaeraren aurkeztu ondorengo egunetik 2023ko irailaren 15era bitartean, hura barne, egiten diren jarduketek izandako gastuek.

Deskargu ekonomikoan egozten diren fakturen data jarduketak egiteko epearen barruan egon behar da.

7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

7.1. Deialdi honetan jasotako laguntzak dirulaguntzen bitartez gauzatuko dira, onuradun motaren, gastu-inbertsioaren eta 10. artikulua arabera lortutako puntuazioaren arabera, gehieneko ehuneko hauei jarraituz:

Onuradunak	50-79 puntu bitartean				80 puntu edo gehiago			
	ETEak		ETEak ez diren enpresak	Elkarteak eta autonomoak	ETEak		ETEak ez diren enpresak	Elkarteak eta autonomoak
	≤100 pertsona	>100 pertsona			≤100 pertsona	>100 pertsona		
Kanpoko gastuak	30		20	30	40		20	40
Barne gastuak	20							
Inbertsioak	10			10	10			10

Langileen barruko gastuak: gehienez soldata kostu gordinaren ehuneko 20eko dirulaguntza emango da, erakunde onuradunaren gizarte segurantzaren kostuak barne, betiere diruz lagundutako jarduketan eskusibotasunez aritzen bada. Arduraldia partziala bada, jarduketari eskainitako arduraldiaren neurri proportzionalean kalkulatu da dirulaguntza.

7.2. Kanpoko gastuetarako dirulaguntzaren gehieneko muga 35.000,00 eurokoa da, erakunde onuradun eta deialdi bakoitzeko. Erakunde onuradunak aurkeztutako jarduketan balioespenean 80 puntu edo gehiagoko kalifikazioa jasotzen badu, muga hori 45.000,00 euroraino handituko da.

Softwarea eta ERP edo antzekoak erosteak eta lizentzia informatikoen 30.000 euroko dirulaguntza izango dute gehienez. Erakunde onuradunak 80 puntuko edo gehiagoko kalifikazioa badu, proiektu horien muga 35.000 eurokoa izango da.

Barruko gastuetan, gehieneko muga 15.000,00 euro izango da.

Kanpoko eta barruko gastuak dituzten proiektuetan 40.000 eurokoa izango da dirulaguntzaren gehieneko muga. Erakunde onuradunak aurkeztutako jarduketan balioespenean 80 puntu edo gehiagoko kalifikazioa jasotzen badu, muga hori 50.000,00 euroraino handituko da.

Ibilgetu materialeko inbertsioetan, 15.000,00 eurokoa izango da dirulaguntzaren gehieneko muga.

50.000,00 eurokoa izango da gehieneko muga dirulaguntzaren erakunde onuraduneko eta deialdiko. Erakunde onuradunak aurkeztutako jarduketan balioespenean 80 puntu edo gehiagoko kalifikazioa jasotzen badu, muga hori 60.000,00 euroraino handituko da.

Honekin batera dagoen taulan laburbiltzen dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuengatik emango diren gehieneko dirulaguntzak:

	50-79 puntu bitartean	80 puntu edo gehiago
Kanpoko gastua	35.000,00 €	45.000,00 €
Barruko gastua	15.000,00 €	
Kanpoko eta barruko gastua duten eskaerak	40.000,00 €	50.000,00 €
Ibilgetu inbertsioak	15.000,00 €	
Guztira, erakundeko	50.000,00 €	60.000,00 €

7.3. Jarduerak dirulaguntza jaso ahal izateko, onetsi behar den gutxieneko dirulaguntza zenbatekoa 1.500,00 euro da.

Ibilgetu materialeko inbertsioek dirulaguntza jasotzeko, horien kostua 15.000,00 euro edo gehiagokoa izan behar da.

7.4. Dirulaguntzen muga osagarri hauek ezartzen dira:

a) 10. artikuluan ezarritako gutxieneko puntuazioa gainditzen duten eta 55 puntu baino gutxiago lortzen dituzten proiektuek 10.000,00 euroko gehieneko dirulaguntza izango dute.

b) Lanaldi osoko 2 enplegu baliokide baino gutxiagoko plantilla duten eta Arabari atxikita dauden erakundeen eskaerek, laguntza eskaera aurkeztu aurreko hamabi hilabetei dagozkienez, 15.000,00 euroko gehieneko dirulaguntza jasoko dute, salbu eta, proiektuaren izaeragatik eta eragin potentzialagatik, komenigarritzat jotzen badu instrukzio organoak muga hori ez aplikatzea.

7.5. Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren 7.4 artikulua aplikatuz, zeinak norgehiagoka bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onesten baititu, Balorazio Batzordeak muga gehigarriak ezarri ahal izango ditu diruz lagun daitekeen aurrekontuaren eta diru laguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko.

8. artikulua. Jardunbidea bideratzeko eskumena duten organoak

8.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela eratuta egongo da:

Batzordeburua: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Batzordekidea: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren burua.

Idazkaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikari bat.

9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

9.1. Eskabideak aurkezteko epea 2022eko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2022eko martxoaren 31n amaituko da, 14:00etan.

9.2. Enpresen edo elkarten kasuan, eskaera horiek, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>); horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute aurretik. Egoitza Elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo: ezagutu egoitza – nola sartu izeneko atalera.

Pertsona fisikoek aukeran izango dute, txandaka, eskabidea Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean bertaratuta egitea (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz). Eskabideak Arabako Foru Aldundiaren erakunde webgunean <https://web.araba.eus/eu/ekonomiaren-garapena/> laguntzak eskuragarri dagoen ereduari egokitu beharko zaizkio. Halaber, eredu hori Ekonomia Garapenaren Zerbitzuan egongo da eskuragarri.

9.3. Egingo diren jarduketak jasotzen dituen eskaera baino ez da onartuko erakunde onuradun bakoitzeko. Nahiz eta ez dagoen mugarik erakunde eskatzaile bakoitzak aurkez dezakeen jarduketa kopururako, balorazio positiboa izango du konplexutasun handiagoko eta, beraz, aurrekontu, gauzatzeko epe eta langileen dedikazio handiagoko jarduketa gutxi aurkezteak.

9.4. Erakunde eskatzaileak inprimakia bete behar du eta informazio hau erantsi:

a) Erakunde eskatzaileari eta aurkeztutako jarduketa multzoari buruz:

– Erakundearen eta aurkeztutako berrikuntza jardueren deskripzio memoria, eskaera balioesteko erabiliko dena, deialdi honen 10. artikuluan xedatutako irizpideen arabera. Aurkeztutako berrikuntza jardueren memorian, honako hauek justifikatu beharko dira: kanpoko azpikontratazio gastuen beharra, I+G+B-ko barne langileen gastuak eta aurrekontuan jasotako ibilgetu inbertsioak.

– Itxitako azken ekitaldian erregistratutako urteko kontuak, benetako titulartasunaren adierazpenarekin eta auditoretza txostenarekin, hala badagokio. Urteko kontuak egitera behartuta ez badago, justifikatzen duen kausaren frogagiria.

– BEZaren salbuespena frogatzeko dokumentazioa (erakundea salbuetsita baldin badago soilik).

– Plantilla Araban alta egoeran dagoela ziurtatzen duen agiria, laguntza eskaera aurkeztu zen egunari dagokiona, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana.

– Hala badagokio, Innobideak-Kudeabide programan parte hartzearen justifikazioa.

b) Aurkeztutako jarduketa bakoitzari buruz:

– Kanpoko hornitzaileen 10.000,00 eurotik gorako eskaintzen fotokopia.

– Hala badagokio, deialdi honetan aurkeztutako jarduketa berberak egiteko eskatutako beste laguntza batzuk / beste laguntza batzuen ebazpenak.

9.5 Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak laguntzaren eskaeran arduradun gisa identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei emango die baliozkotasuna erakunde eskatzaileak. Harremanetarako posta elektronikoko kontu gisa soilik onartuko da programaren onuradun moduan agertzen den enpresarena.

9.6. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea izapideak egiten dituen organoak zuzenean eskuratu ahal izateko 3. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiria, eta bereziki, Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharre dagokienez.

10. artikulua. Balorazio irizpideak

Eskaerak baloratzeko, jarraian adierazten diren irizpideak eta puntuazioak erabiliko dira eta, gutxienez, 50 puntu beharko dira proiektuak dirulaguntza jaso ahal izan dezan:

• Jarduketan berrikuntza edo berritasun maila (0-30):

– Jarduketak zein berrikuntza motatan kokatzen diren eta haien berrikuntza maila.

– Bezeroak, merkaturak, lehiatzaileak, ekoizkinak, teknologiak eta abar direla eta, negozio estrategiari eta birkokapenari egindako ekarpena.

– Kudeaketa strategiari eta lehiatzeko gaitasuna hobetzeari egindako ekarpena; bezeroen zehaztapenei emandako erantzunari, kostu/prezioari eta epeari dagokienez.

– Zein esparrutan den berritzailea (nazioartean, estatu mailan edo eskualde mailan).

– Euskadiko espezializazio adimenduneko arloekiko inplikazioa: industria adimenduna, energia garbiena eta osasun pertsonalizatua.

• Jarduketetatik espero diren emaitzak (0-30):

– Produktu, zerbitzu, prozesu edo enplegu berriak sortzeko espektatibak.

– Merkataritza ustiapen eta fakturazioaren eraginaren aurreikuspenak Nazioartekotzeari ekarpena egitea.

– Lurraldearen ekonomia sarea dibertsifikatzen eta lurralde mailan orekatzen ekarpena egitea.

• Jarduketetan parte hartzen duten enpresen gaitasun teknikoa eta finantzarioa (0-15):

– Jarduketetan landutako materialen parte hartzen duten erakundearen esperientzia eta gaitasuna.

– Jarduketetan eskatutako giza baliabideen egokitzapena.

– Planteatutako helburu eta jardueri dagokienez aurrekontu koherentea, eta aurrekontuaren finantzaketaren aurreikuspena.

- Aurkeztutako memoriaren kalitatea (0-10):
 - Helburu eta metodologiaren deskribapena, argitasuna (lortzeko planifikatutako ekintzak).
 - Lanen definizioa, gauzatzeko kronograma.
- Kudeaketa aurreratuko jardunbideak (0-5):
 - Innobideak-Kudeabide programaren doako kudeaketaren erkaketak egitea.
 - Kudeaketa aurreratuko proiektu pilotuak egitea Innobideak- Kudeabide - 2 A fasea, barne hartzen dituena autoprestakuntza, saio presentzialak eta aplikazio praktikoko proiektu bat egitea.
 - Kudeaketa aurreratua eta bikaintasuna saritzea.
 - Ekoizkinak garatzeko gaitasuna berri eta aztertze sistemak autoebaluatze tresnak eta berrikuntza zerbitzuak erabiltzea.
- Enpresaren konpromisoa trantsizio ekologikoarekin, gizarte erantzukizunarekin, euskararen sustapenarekin eta berdintasunaren sustapenarekin (0-10).

11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

11.1. Balorazio Batzordeak proposatuta, beharrezko ebazpenak emango ditu organo eskudunak. Ebazpen horiek bitarteko elektronikoaren bidez jarriko dira eskatzailearen eskura, eta pertsona fisikoaren kasuan, gainera gutun ziurtatu bidez, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoarekin.

11.2 Jakinarazitako ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, egintza hau jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioan, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

12. artikulua. Emandako laguntza onartzea

12.1. Erakunde onuradunak onarpena aurkeztu behar du edo, hala behar denean, uko egitea, dirulaguntza ematearen jakinarazpena jaso ondorengo hamar egun balioduneko epean, bai egoitza elektronikoan, bai aurrez aurre.

12.2. Baldin prozeduran zehar erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, puntuazio hurrenkerako hurrengo proiektu edo jardunei dirulaguntza adjudikatzea erabaki ahalko du dirulaguntza ematen duen organoak, beste deialdi baten premiarik gabe, baldin eta hala egin badaiteke eta onuradunak uko egiteagatik nahikoa kreditu eragin bada, ezetsitako eskaeraren bati, behintzat, aurre egiteko.

13. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

13.1. Onartutako dirulaguntzak ebazpenean nahiz ondorengo puntuetan xedatutako betekizuna eta baldintza guztiak bete ondoren likidatuko dira.

13.2. Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 50, ebazpena onartutakoan eta erakunde onuradunak 12. artikuluan aipatzen den onarpena aurkeztutakoan ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa.

13.3. Justifikatu beharreko aurrerakin moduan egingo da dirulaguntzaren ordainketa, eta ez da ezarriko emandako funtsen berme araubiderik.

13.4. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordain dezan eta lehenengo ordainketa justifikatuz eman dezan, alde aurretik onuradunak, 2023ko urriaren 27ra arteko epean (egun hori barne), dirulaguntzaren guztirakoaren frogagiri hauek aurkeztu beharko ditu, bai egoitza elektronikoan, bai aurrez aurre:

- Egindako jarduketa guztien amaierako memoria, helburuen lorpen maila, gogobetetze maila, jarduketak egiteko egutegiaren betetze maila eta diruz lagun daitezkeen kontzeptuen desbideraketak zehaztuz.

- Kanpoko gastuen, ibilgetuko inbertsioen eta barneko gastuen koadroa, bai eta, hala bada-gokio, diruz lagundutako jardueren diru sarrerena eta/edo finantzaketarena ere.

- Ordainagiriak eta gainerako frogagiri baliokideak. Beste herrialde batzuetako erakundeek egindako fakturak itzulita egongo dira, ingelesez egindakoak izan ezik.

- Eskaintza hirukoitza eta arrazoitzeko txostena hautatutako eskaintza ekonomikoki onena ez bada (izandako benetako kanpoko gastua 15.000,00 euroko mugaraino iritsi edo hura gainditzen badu eta eskabidean aurkeztu ez bada).

- Hala badagokio, deialdi honetan aurkeztutako jarduketa berberak egiteko eskatutako beste laguntza batzuk / beste laguntza batzuen ebazpenak, aldeztu aurretik aurkeztu ez badira.

- Egindako gastuen ordainketaren justifikazioa, tipologiaren arabera.

- a) Kanpoko gastuaren kasuan, fakturen ordainketa justifikatzeko, dagokion banku transferentzia edo merkataritzako trafiko juridikoan pareko frogak balioa duen beste agiriren bat erabiliko da, baldin eta ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa, ordaintzeko data eta kontzeptua zehazten badira.

- b) Diruz lagundu eta ordaindutako berrikuntza jarduketei lotutako barneko gastuaren kasuan, nominak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordaindu izana eta ordutegi kostua justifikatu beharko dira, hauek erabiliz:

- Kasuan kasuko pertsonak eta jarduketaren arduradunak sinatutako ordutegi parteak, egotzitako orduak egiaztatzen dituztenak.

- Urteko lanaldia, erakundearen aplikagarri den hitzarmenaren arabera.

- Dagozkion nominak eta bankuko laburpenak edo transferentzia telematikoen aginduak. Ordainketa bidalketa bidez egiten bada eta banku laburpenean ez bada kasuan kasuko langilearen izena zehazten, erakundearen kudeatzailearen idazki bat erantsiko da, non adieraziko den langile horren nominaren ordainketa kasuan kasuko bidalketan egin dela.

- Kotizazioen likidazioaren zerrenda (RLC) (lehen TC1), gizarte segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua, eta ordainketaren banku laburpena.

- Langileen izenen zerrenda (RNT) (lehenago TC2), gizarte segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua.

- Erantzukizunpeko adierazpena, Arabako Foru Aldundiaren webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera (<https://web.araba.eus/eu/ekonomiaren-garapena/laguntzak>) eta bertan adierazi beharko da erantsitako fitxategiak jatorrizkoen irudi fidela direla, erakunde eskatzailearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko direla, hala eskatzen zaionean.

13.5. Kanpoko profesionalak luzatutako fakturen eta barruko gastuen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketaren betebeharra onartuko da, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta dagokion justifikazio txostena ematea, Arabatik kanpoko zerga helbideratzea duten kanpoko profesionalak egindako fakturen kasuan izan ezik. Kasu horretan, onuradunak frogatu beharko du atxikipenak ordaindu direla. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

13.6. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epe mugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira eskatutako agiriak.

13.7. Epe horiek igaro eta eskatutako agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztu beharreko guztia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzaren arabera. Salbuespen gisa, epez kanpoko justifikazioak onartu ahal izango dira, dokumentazioa muga egunaren ondorengo hamabost egun naturalen barruan aurkezten bada, eta dirulaguntzari ehuneko 20ko murrizketa aplikatuko zaio azkenean justifikatutako zenbatekoaren gainean.

13.8. Ordainagiriak onartutako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta dagokion kopurua baliogabe utziko da.

13.9. Ordaindu behar den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, hura onartzean bezala, 1.500,00 eurokoa da.

13.10. Dirulaguntza jaso duten jardueri eragiten dien gorabehera edo aldaketa oro jakinaraziko zaio Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari, eta behar diren erabakiak hartu eta erakunde onuradunari jakinaraziko dizkio berak. Aldaketak onartu ahal izango dira, onartutako gutzitako gastua muga delarik, hasiera batean diruz lagundutako jarduketetan eta horiei dagokien diru zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez izana gorabehera.

Aldaketa horiek Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute.

Funtsezko aldaketak egotekotan, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzaren onarpena beharko da.

13.11. Dokumentuak telematikoki aurkezten badira, erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren webgunean (<https://web.araba.eus/eu/ekonomiaren-garapena/laguntzak>) agertzen den ereduaren arabera, eta adierazi beharko da erantsitako fitxategiak jatorrizkoen benetako irudiak direla, jatorrizko dokumentuak eskaera egin duen erakundearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko direla, hark hala eskatuz gero.

13.12. Erakunde onuradunek gastuen agiriak aurkeztu ondoren, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak diruz lagundutako jarduerak egiaztatzeko.

14. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Oinarri orokorrak onesten dituen Diputatuen Kontseilu Foralak abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak hamahirugarren oinarrian ezarritakoa aplikatzekoak izateaz gain, diruz lagundutako jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein dela ere horien izaera eta ematen dituen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira deialdi honetatik datozenekin, diruz lagundutako gastuaren ehuneko 80raino iritsi arte. Salbuespen izango dira Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzarenak ez diren Arabako Foru Aldundiaren beste administrazio unitate batzuek emandakoak, bateraezinak izango baitira.

15. artikulua. Garapena

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro emateko.

16. artikulua. Deslokalizazioa

Enpresa deslokalizaziotzat joko da egoera bi hauek batera gertatzea:

a) Dirulaguntza ordaindu eta ondorengo bost urteetan Araban enpresaren jarduera amaitu edo nabarmen murriztea.

b) Aldi berean, edo arestiko egoeraren aurreko edo ondorengo bost urteen buruan, bere jarduerari utzi dion erakunde berak, edo talde berekoa den edo hari lotuta dagoen beste erakunde baten bitartez, beste toki batean jarduera bera garatzea.

17. artikulua. Baterako finantzaketa

17.1. Deialdi honetan jasotako laguntzak Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) ere finantzatzen ditu, ehuneko 40ean, 2021-2027 EHPOren esparruan.

17.2. Europar funts horri buruzko Europako araudia beteko dela bermatzeko, erakunde onuradunek gastuei loturiko egiaztagiriak gorde beharko dituzte, gutxienez 2037era arte.

17.3. Deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 49. artikuluko 3. apartatua jasotako eragiketa zerrendan sartu ahalko dira.

17.4. Erakunde onuradunek aparteko kontabilitatea edo kontabilitate kode egokia eduki beharko dute EGEFek kofinantzatutako eragiketekin lotura daukaten transakzio guztien inguruan.

18. artikulua. Publizitatea eta komunikazioa

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jarduketak zabalteko ekintzarik eginez gero, Arabako Foru Aldundiak emandako finantzaketa eta EGEFek emandako aldi bereko finantzaketa aipatu beharko ditu zabalkunderako baliatutako bitarteko eta materialetan; horrela, bada, erakunde horiek irudi korporatiboa dela-eta ezarritako oharretara egokituko dira.

19. artikulua. Eskaerak egokitzea

Aurkeztutako eskaerek deialdi honetan araututako dirulaguntzak jaso ezin badituzte Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak kudeatzen dituen beste laguntza jarduketa batzuetara aldatu ahal izango dira ofizioz.

20. artikulua. Araubide juridikoa

Deialdi honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseilu Foralak abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez eta ondoren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Dekretuak aurreko dekretuari egiten dion aldaketaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.